



Aretxabaletako
Udala



LEINTZ UDAL EUSKALTEGIAN MATRIKULA

2022/2023 IKASTURTEA

Leintz Udal Euskaltegiak 2 egoitza ditu

- Aretxabaletan dago bulego nagusia: Nafarroa kalea 2 – behea
- Eskoriatzan Euskal Txokoa dago: Intxaurtxueta auzoa 9 – 10 behea
- Harremanetarako:
 - 943 79 21 68
 - idazkaritza@udaleuskaltegia.eus
- Informazioa eman eta matrikula egiteko, **iraileko ordutegia** :
 - **Astelehenetik ostegunera 09:00-13:00 / 16:00 – 19:00**
 - **Ostiraletan 09:00 – 13:00**

Matrikula prezioa:

- 2022-2023 ikasturteko prezio osoa: 415 € (Online 425 €)
- HOBARIAK daude (ikusi dokumentua eranskinean): ikasleak, langabetuak, tarifa soziala... Hobariak aplikatuta, matrikula osoaren portzentaje bat ordaintzen da ikasturte hasieran.
- DIRULAGUNTZAK. Ikasturtea bukatu eta honako baldintzak betetzen dituztenek, ekainean dirulaguntza jaso dezakete, ordaindu duten matrikula-prezioaren % 60ra artekoa hain zuzen.

(*) Diru-laguntza jasotzeko bete beharreko baldintzak

- % 75eko asistentzia
- Azpimaila bat gainditzea
- Aretxabaletan edo Eskoriatzan errolatuta egotea
- HABEko mailarik egiaztatu ez izana
- Ez da onartuko ziurtagiririk

Taldeak sortzeko:

- Saiatzen dira maila guztietako taldeak sortzen, baina gutxienez 6 pertsona behar dira talde bat sortzeko.
- Klaseak Aretxabaletan edo Eskoriatzan emateko, honako irizpidea jarraitzen da: taldean dagoen jende kopuruaren gehiengo nongoa den. Hau da talde baten 7 lagun badaude eta 3 Aretxabaletakoak eta 4 Eskoriatzakoak, orduan talde hori Eskoriatzan emango da.
- Ordutegia gehiengoaren beharretara moldatuta adosten da.
- Normalean talde batek astelehenetik – ostegunera izaten ditu klaseak, egunean 2 orduz. Baina talde bereziak ere sortu ohi dira beste modalitate batzuetan. Onena galdetzea da.